

AITORTU, ARREN!
Mikel Kaltzakorta Intxausti
Gernika-Lumo

Hire etxearen margo kolore ederra,
hire buruko lorategiaren kolore alaia,
hire leiho urdinen begirada,
hire bizitokia baino handiagoa da,
nik higatik sentitzen dudana.
Ezaugarri horiek nire bizitza alaitzen dute.
Ez dakit zer egin hire bihotza nire etxera eramateko.
Oraindik adiskideak baino ez gara eta oraindik
azkarregi da,
baina nire garunean hi bakarrik hago.
Bakarrik gauza bat itaundu nahi dinat,
hire bizitza nirekin iragan nahi badunanentz.
Denbora igarotzen doa eta nik hire ildo jarraitzen
dinat.
Hiretzat ikusezina naizen arren,
ziurtasunez dakit, hire bihotz aitortu ezinean,
nire irudi esanguratsua dagoela.